



DOHAINIK FORMAZIOA

Kurtso on line

25 ordu (kreditu 1)

MASKULINITATEAK. GIZONAK ETA BERDINTASUNA: ERRONKAK ETA ERRESISTENTZIAK 2026

urriaren 13tik azaroaren 20ra

Gizonduz



UPV/EHUko BERDINTASUNERAKO ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN PARA LA IGUALDAD DE LA UPV/EHU

www.euskadi.eus/gizonduz

Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO



BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

MASKULINITATEAK. GIZONAK ETA BERDINTASUNA: ERRONKAK ETA ERRESISTENTZIAK

Modua: **online**, 25 ordu (kreditu 1), dohainik

Hizkuntza: **euskara**

Plazak: **100 plaza ikasle, TEKAZEL eta IIPentzat**

Izen-emateak: **2026ko irailaren 14tik urriaren 5era**, biak barne

Hasiera-data: **2026ko urriaren 13an**

Amaiera-data: **2026ko azaroaren 20an**

Arduraduna

Enara Agirre Arrizabalaga

Ebaluatzaile taldea

Elo Mayo Cabero

Christina Werckmeister Lacarra

Jose txu Riviere Aranda

Karlos García Zuazo

Talde teknikoa

Jose txu Riviere Aranda

Programa

Antolatzailea

EHUko Berdintasunerako Zuzendaritza

Egileak

Elo Mayo Cabero, Christina Werckmeister Lacarra,
Mikel Otxotorena Fernández y Jose txu Riviere Aranda

Sarrera

Kultura bakoitzak gizarte horretako gizonen jokaera, jarrerak eta nahiak gidatzen dituzten kodeak, estereotipoak eta rola dauzka; hortaz, maskulinitasunaren definizio "kulturala" dagoela esan dezakegu, eta askotariko identitate maskulinoak zeharkatzen eta baldintzatzen dituela definizio horrek.

Beraz, eraikuntza sozial jakin bati erantzuten diote gizonengandik espero dugunak, gizon izateak berak eta kolektiboki gizontzat hartzen dugunak. Hori dela eta, badakigu maskulinitasuna definitzen duten ezaugarriak ez direla ez berezkoak, ez naturalak: sozialak dira, ikasitakoak. Horrek esan nahi du ez dagoela identitate maskulino bakarrik, ez eta maskulinitasun-eredu itxirik ere. Izan ere, errealitateari begiratzen diogunean, "gizon izateko" askotariko moduak ikus ditzakegu.

Bestetik, hainbat aldagaik baldintzatzen dituzte modu horiek; besteak beste, adinak, klase sozialak, etniak eta kondizio edo hautu sexualak. Beraz, gizarte eta une historiko bakoitzean maskulinitasun-eredu nagusi eta hegemoniko bat dagoela esan genezake, baina baita askotariko identitate maskulinoak eta gizon izateko modu anitzak daudela ere.

Premisa horretatik abiatuta, hainbat mailatan lan egitea ahalbidetzen duen tresna gisa planteatu da ikastaro honetako prestakuntza-programa:

- Alde batetik, errealitatearen azterketa sakona egingo da, genero teoretatik abiatuta, gizonak eta emakumeak eraikitze moduaren inguruan hausnartzeko. Horretarako, gure gizarteko genero harremanekin eta emakumeen eta gizonen berdintasunarekin zerikusia duten alderdi soziologikoak, politikoak, kulturalak eta ideologikoak jorratu behar dira.
- Bestetik, esku hartzeko proposamenak aztertuko ditugu, eta, hortaz, gizonek beren burua eraikitze modua jorratuko dugu. Bada, gizonen maila pertsonal, emozional eta ideologikoaren gainean lan egiten utziko diguten tresna eta esperientzia zehatzak aztertzea da kontua, gizonei zuzendutako lan-ildoak zehaztea ahalbidetuko duten estrategiak garatzeko hortik, eta berdintasunezko praktiketara sartzeko horiek.
- Azkenik, maila kolektiboan aldaketak gertatzea sustatuko duten eta berdintasunaren aldeko jarrera aktiboari bidea emango dieten programak eta esperientziak ezagutu eta aztertuko ditugu.

Xedeak

Ikasleek (EHUko irakasleak eta ikertzaileak, administrariak eta zerbitzuetako langileak eta ikasleak) gure gizartean maskulinitasunaren eraikuntza soziala aztertzeke gaitasun teoriko eta praktikoak garatzea da ikastaro honen helburua.

Hori guztia berdintasunaren ikuspegitik egitea da asmoa, eta, horretarako, errealitatea genero-ikuspegiarekin aztertzeke ezagutzak eta errealitate hori ulertzea ahalbidetzen duten tresna metodologikoak eskuratu behar dira.

Gure gizarteetan dauden maskulinitasunaren adierazpen anitzak jorratuko dira, baita horrek emakumeei eta gizonei beraiei ekartzen dizkien ondorioak ere.

Aldi berean, emakumeen eta gizonen berdintasunean egin diren aurrerapenak, dauden erresistentzia nagusiak eta agertu diren diskurtso sexistak aztertuko ditugu.

Indarkeria matxistari buruzko azterketan sakonduko dugu, biztanle gazteenengan, kausetan eta adierazpen ohikoenetan zentratuz.

Azkenik, gizonen taldeekin berdintasunaren alde egiten den lana eta esperientzia zehatz batzuk ezagutuko ditugu.

Gaitasunak

- Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko orduan gizonak inplikatzek duen garrantziaren inguruan kontzientziatzea.
- Genero-ikuspegitik ulertzea genero-ikerketetako kontzeptu giltzarriak.
- Gure gizarteetan dauden maskulinitasun-adierazpen anitzak (hegemonikoak, konplizeak, menpekoak eta bazterrekoak) ezagutzea eta ulertzea.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunean egin diren aurrerapenak, dauden erresistentzia nagusiak eta agertu diren diskurtso sexistak berriak ezagutzea.
- Indarkeria matxista, horren kausak, motak eta adierazpenak ulertzea eta aztertzea, biztanle gazteenen egungo errealitateara hurbilduz.
- Gizonen taldeekin berdintasunaren alde egiten den lanari eta esperientzia zehatz batzuei buruzko ezagutzak eskuratzea eta jasotzea.

Edukiak

1 modulua

Sexu-genero sistema. Generoaren sozializazioa. Emakumeen eta gizonen arteko desberdinkerien egungo egoera.

2 modulua

Maskulinitateen eraikuntza, erronkak, aldaketak eta erresistentziak.

3 modulua

Maskulinitateak eta indarkeria matxista.

4 modulua

Gizonekin lan egitea maskulinitateak deseraikinez.

Metodologia eta ebaluazioa

Ikastaroko gai bakoitzean, hau egongo da:

- Unitate bakoitzaren eduki teorikoa: gaia sakon landuko duen ekarpen teorikoa (15 orrialdekoa gehienez).
- Dokumentazioa: unitate didaktiko guztiek edukiko dute beren zerrenda bibliografikoa, baita erreferentziazko gaietan sakondu ahal izateko beharrezkotzat jotzen diren baliabide guztiak ere (bideoak, albisteak, webgunetarako estekak e.a.).
- Parte hartzeko foroak: ikasleek nahitaez hartu beharko dute parte foro guztietan, ikastaroaren xedeak gainditu eta ziurtagiria lortzeko. Foroetan, artxiboak eta dokumentuak partekatu ahalko dira.
- Testa: jaso diren ezagutzak baloratzeko asmoz, ezagutza-testa egin beharko da unitate didaktiko bakoitza amaitzean, eta hurrengo unitatera igarotzeko betekizuna izango da.
- Azken lana: ikastaroa amaitzen denean, gaiarekin zerikusia duen lan bat egingo da.

Izen emateak hemen